

Irudiak eta afektuak



Museo batera egindako bisitatik eta Mirari Echávarriren Gorputzak #1 Santa Ageda obratik abia-tuko gara irudien botere afektiboari buruz hausnartzeko. Irudi berriak sortzeko eta irudi horiek zeharkatzen dituzten afektuak eraldatzeko estrategiak bilatuko ditugu.

Helburuak

- Mirari Echávarriren obrara eta sormen-prozesura hurbiltzea.
- Prozesu artistikoetan afektuek duten funtzioari buruz hausnartzea.
- Sormenezko esperientzia bat diziplinarteko modu batean bizitzea.
- Irudiei galderak egiten ikastea.

Aipamenak

Gorputzak #1 Santa Ageda, Mirari Echávarri: (pasahitza: bodies) <https://vimeo.com/250011837>

Elkarrizketa Mirari Echávarri: <https://vimeo.com/channels/elkarrizketa>

Pensar los afectos (Afektuak pentsatu) konferentzia, Jo Laba-nyi: <https://www.cccb.org/es/multimedia/videos/jo-labanyi/223394>

Esther Ferrerren performancea galde-erantzunekin, CAAM zentroan: https://www.youtube.com/watch?v=cViguMeCNgY&ab_channel=CAAMGranCanaria

James Blakeren «Can't believe the way we flow» abestiaren bideokli-pa: https://www.youtube.com/watch?v=FgXN2Q-qjGQ&ab_channel=JamesBlakeJamesBlake

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Museo batera joan. Bisitaldian, ikasle bakoitza bakarka ibiliko da aretoetan zehar. Lau elementu bilatu beharko ditu, eta argazkiak atera telefonoarekin:

- Ulertzen ez duen zerbait.
- Identifikatuta sentiarazten duen zerbait.
- Izugarri gustatzen zaion zerbait.
- Izutzen duen zerbait.

2. Lau irudietatik bat hautatu, eta plataforma digital komun batera igoko du ikasle bakoitzak.

Irudiak lehen aldiz ikusi eta iradokitzen digutenaz hitz egingo dugu. Irudi bakoitzak sortutako afektuari buruz espekulatzen saiatuko gara («ez dut ulertzen», «identifikatu egiten naiz»...).

3. Gela 4 edo 5 pertsonako taldetan banatuko dugu eta irudiak ausaz banatuko ditugu. Ikasle bakoitzak galdera bat idatziko du egokitu zaion irudiaren atzealdean, eta, ondoren, besteen argazkien atze-aldean. Galdera idazteko premisa: zer galdetuko zenioke irudiari edo argazkia atera duen pertsonari?

4. Mirari Echávarriren Gorputzak # 1 Santa Ageda obra ikusiko dugu.

Galdera hauei erantzuten saiatuko gara:

Zein afektutatik lotzen da Mirari Santa Agedaren irudiarekin? Ulertzen du, harekin identifikatzen da, gustuko du, izutu egiten du? Zer beste afektu daude obran?

Zer beste irudirekin lotzen du Santa Agedaren irudia? Ikusi ditugunak zerrendatuko ditugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Ikasle bakoitzari museoan ateratako argazkia emango diogu, inprimatuta eta klasekideen galderekin. Ikasle bakoitzak galderetako bat aukeratuko du eta gorputzarekin erantzuten saiatuko da, hitzik gabe: keinu bidez, soinu batekin edo biak konbinatuta. Irudian agertzen den zerbait eduki behar du erantzunak.

2. Gela 4 edo 5 pertsonako taldetan banatuko dugu, eta ikasle bakoitzak bere keinu-erantzuna eraku-tsiko du besteen aurrean. Gainerakoek keinutik atzematen dutena marraztuko dute (xehetasun bat, mugimenduaren norabidea...). Keinuerantzun bakoitzeko marrazki bat egingo dugu, eta, azkenean, pertsona bakoitzari dagokion marrazkia emango diogu.

Jardueraren ondoren, pertsona bakoitzak material hau izango du:

- Argazki-irudi bat
- Galdera batzuk
- Keinuerantzun bat
- Keinuerantzunaren 3 edo 4 marrazki

3. Material horiekin, «irudi» berri bat sortuko du bakoitzak. Garrantzitsuena edo interesgarriena zer den bereizi behar du, eta irudiari zer forma emango dion erabakiko du: beste argazki bat, bideo bat, collage bat, testu bat, performance bat...

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Ikasle bakoitzak bere «irudi» berria aurkeztuko du klasekideen aurrean, eta ondoren galdera-txanda labur bat egongo da. Prozesuaz eta erabakiak hartzeaz hitz egiteko unea izango da. Hasierako argazkia ateratzeko erabili zen afektua aldatu al da? Nola?